

[UDA HURRERATZEN]

Ixten joan garen koaderno  
 eta liburu sailen haizez  
 uxatu dugu kurtsoa;  
 eta pupitreak koaderno  
 eta liburu gabe utziaz  
 bakazioei atondu  
 diegu lekua.  
 Eta erne dira edota badatoz,  
 aste egun neketsuen ondoren  
 igande argia bezala,  
 zabalduz badatoz bakazioak ,  
 eta hasi gara jadanik  
 opor egunok dastatzen,  
 kezkarik gabe eta pozik  
 zehartu dezakegun  
 itsaso epel bat edo  
 paraje zoragarri bat bezala,  
 eta atseden eta atsegin sentazioz  
 murgiltzen gara.  
 Aitaren eta amaren ondora  
 itzultzera goaz  
 aitagandik, amagandik ikastera,  
 anaia eta arrebekin aritzera,  
 familiako ontzi gozoan  
 maitasun txangoa bizitzera.  
 Egunek luzatuko dute beren argia,  
 eta gu, argi luzetan luzatuko gara,  
 zutik edo etzanda,  
 bizipozari zabalik.

Gau epelak garbi hedatuko dira  
 gure lo lasaiaren gainean  
 eta gure ametsak eder izango dira.  
 Bideek egunero eramango gaituzte  
 hondartzara, baso edo mendi  
 bizitza trinko eta alaiez jantzieta.  
 Eta gogoak eman ahala ahalko dugu irakurri  
 kreazioko liburu atseginezkoa.  
 Eta erreka geure eskuz ukituko dugu  
 eta oihanetan sartuko gara  
 eta hodeien igarotzea begiratuko dugu  
 eta mendietara jarriko gara  
 eta itsaso eta hiri beti berrietara,  
 gizakien eta gauzen hizkuntza entzutera,  
 lagun eta anai-arrebena bezala.  
 Galdutako paradisia bilatuko dugu  
 edo ahaztuta genuena. Eta atsedenaren bidez  
 hartaraino edo geure buruen barruraino  
 barrenduko gara  
 barrenean dugun gizakia aurkitu arte,  
 barrenean dugun gizakia askatu arte.  
 Igandea ospatzera atera arte,  
 gauzen eta gizakien artean  
 jarri arte,  
 lanaren eta atsedenaren gizakia  
 jatorrizko ekilibrio jator  
 eta jaungoikozkotan.